

Regin, AEBek Europa espiatzeko erabili zuten birus informatikoa

2013AN EDWARD SNOWDENEK AEBetako NSA eta Erresuma Batuko GCHQ gobernu-agentziak Europako hainbat estatutako administrazioa espiatzen ari zirela azaldu zuen, eta denon gogoan dagoen eskandalua gertatu zen.

Baina, nola espiatzen zuten?

Joan den azaroaren 23an, Symantec enpresak esan zuen erabilitako espioitza sistema atzeman zuela. Adierazi zutenez, arestian aipatutako agentziek Regin izeneko birusa baliatu zuten, luzaroan antza denez. Europako Batzordeko komunikazioak kudeatzen dituen Belgacom enpresaren bidez sartu omen zen birusa espiatu beharreko sistema informatikoetan, eta hainbat etapatan egin zuen bere lana.

Lehenbizi LinkedIn sare profesionalaren orri faltsu bat bidali zitzaion hainbat teknikariri, eta horietako batek edo batzuek orria zabaltzean birusa ordenagailuetan ezkutatu zen, Microsoftek erabiltzen dituen fitxategi-izenak erabiliz. Ondoren ordenagailu eta zerbitzarien bihotza den kernelean instalatu zen, eta bere ibilbidean utzitako arrasto guztiak ezabatu zituen.

Birus horien bidez, giza espioiek milaka ordenagailuren kontrola lortu eta milaka dokumentu pribatu eta konfidentzialen berri izan zuten. ■



JIM URQUHART / REUTERS

Itsas trikuak, itsasoko ekosistemen orekarako giltzarriak

Bartzelonako Unibertsitateko ikerlari talde batek algen, itsas trikuen eta hainbat arrainen arteko oreka aztertu du. Behatu dutenez, trikuak algak jaten dituzte eta arrainek trikuak; populazio horietako baten gora-beherak berehalako eragina izan dezake gainerako taldeetan.

ttiki.com/92199

(Gaztelaniaz)

Material berri batek eguzkiko beroaren %90 xurga dezake


San Diegoko Unibertsitateko (AEB) ikerlariak diseinatu duten material batek, eguzkitik iristen zaigun beroaren %90 baliatzeaz gain, 700 gardura bitarteko tenperaturak jasan ditzake. Asmakuntza, batez ere, eguzkiaren energia baliatzen duten zentral termikoetan izan daiteke erabilgarria.

ttiki.com/92200

(Gaztelaniaz)

Etxe barrua hozteko balio duen material berria

STANFORD UNIBERTSITATEA



AZKEN HAMARKADETAN izugarri hedatu da aire girotuaren erabilera, eta horren ondorioz energia kontsumoa asko handitu da.

Nature aldizkarian argitaratu emandako artikulua batean azaldu dutenez, AEBetako Stanford Unibertsitateko ikerlari talde batek arazoa arindu dezakeen material berria sortu du. Aluminiozko xafla bat baino meheagoa da, eta bi zeregin betetzen ditu: batetik, gela

batean dagoen beroa espaziorantz bidaltzen du, erradiazio infragorri gisa; bestetik, eguzkitik datozen izpiak islatzen ditu. Era horretan, xafla kokatua dagoen teilatupeko gelan bost graduko tenperatura jaitsiera lor daiteke. ■



Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera



web garapenak



multimedia



aholkularitza



edukiak

iametza
interaktiboa
www.iametza.com
T.943 37 67 16